
Berme- -batzordearen araudia

Sarrera

2022ko urtarrilaren 22an egindako III. Biltzarrean onartutako Sortu alderdi politikoaren estatutuen 24. artikuluan ezarritakoari jarraikiz garatzen da araudi hau.

I. Titulua. Definizioa, eraketa, osaera eta funtzioak

1. ARTIKULUA.- DEFINIZIOA.

SORTUren funtzionamendu demokratiko eta gardenaz, eta sortzaileen eskubideen defentsaz eta bermeaz arduratzen den organo inpartzial eta independentea da Berme Batzordea. Era berean, alderdi politikoaren organoek eta sortzaileek alderdiaren beraren Estatutuak betetzen dituztela egiaztatuko du.

2

2. ARTIKULUA.- ERAKETA.

Hilabeteko gehieneko epean eratuko da Berme Batzordea, Biltzar Nazionala amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Sortuko idazkari nagusiak deituko ditu batzordea osatzen duten pertsonak, batzordea bera eratu eta biltzarrak agindutakoa betetzeko. Idazkari nagusiak joaterik ez badu, bere kideren batean delegatu ahalko du Exekutiba Nazionalak kide horrek idazkari nagusia horretarako ordeztu dezan.

Eratze-bileraren aktaren kopia bidaliko dio Berme Batzordeak idazkari nagusiari, batzordeko kideak zein diren eta hartutako erantzukizuna adieraziz, hori publikoki iragarri dadin eta sortzaileek horren berri izan dezaten.

3. ARTIKULUA.- OSAERA, HAUTAKETA, AGINTALDIA ETA BATERAEZINTASUNAK.

Sorturen Biltzar Nazionalak hautatutako 5 kidek osatzen dute Berme Batzordea. Gutxienez 2 emakumeak izango dira. Bost urteko aldirako hautatuko dituzte guztiak ere.

Berme Batzordeko kide izateko hautatutako pertsonak afiliazioan 6 hilabeteko aintzinasuna izan beharko dute gutxienik.

Kideak ezin izango dira ordeztu hautatuak izan ziren agintaldian, araudi honetan espresuki aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Berme Batzordeko kide izatea bateraezina da beste edozein kargu organiko edo publikoren titulartasunarekin, hautatutako edo izendatutako kargua bada ere.

4. ARTIKULUA.- FUNTZIOAK.

Honako hauek dagozkio:

- Irizpenak ematea, alderdiaren kide anitzeko organoek eskatuta, Sorturen estatutuen edo araudien interpretazioari buruz.
- Babes-errekurtsoak ebaztea diziiplina-espedienteei dagokienez.
- Alderdiko edozein organok hartutako akordioen aurkarapenak ebaztea, esku-men-gatazkak barne.
- Estatutu-eskubide batzuk urratu zaizkiela uste duten sortzaileek zein gobernu-organoek jarritako babes-demandak ebaztea.
- Sortzaileak edo SORTUren gobernu-organoak eraginpean hartzen dituzten auzien berri ematea Batzar Nagusiari urtean behin.

II. Titulua. Barne-antolaketa.

m

5. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUN EXEKUTIBOAK.

Honako erantzukizun hauen inguruan antolatuta garatuko ditu bere funtzioak Berme Batzordeak:

- a. Osoko bilkura.
- b. Presidentetza.
- c. Presidenteordetza.
- d. Idazkaritza Teknikoa.

6. ARTIKULUA.- OSOKO BILKURA.

1. Berme Batzordea osatzen duten pertsona titularrek osatzen dute osoko bilkura.

Honako hauek dira osoko bilkuraren funtzioak:

- a. Presidentea hautatzea.
- b. Presidenteordea hautatzea.

- c. Idazkari teknikoa hautatzea.
 - d. Irizpenak eta txostenak lantzea alderdiaren zuzendaritza-organoek hori eskatzen badute, eta osoko bilkurako kideek berretsi beharko dituzte betiere.
 - e. Berme Batzordearen erregelamendua garatzea eta haren aldaketa proposatzea, baita Berme Batzordearen funtzionamendua eraginpean hartu dezakeen beste edozein dokumenturena ere.
 - f. Berme Batzordeari esleitutako gai eta eskumenetatik eratorritako Sortuko organoek eta sortzaileek planteatzen dituzten gaiak bideratzea.
 - g. Berme Batzordearen eskumenen esparruaren barruan sartzen den eta erregelamendu honetan aurreikusi gabeko edozein gai ebaztea.
3. Modu presentzialean edo telematikoan bilduko da osoko bilkura, modu telematikoan lehenetsita,
 4. Osoko bilkurako gutxienez 3 kide bildu beharko dira osoko bilkura hori balio osoz egindako bileratzat hartzeko.

7. ARTIKULUA.- PRESIDENTEA.

1. Gehiengo single bidez hautatuko du osoko bilkurak presidentea.
2. Honako hauek dira presidentearen funtzioak:
 - c. Osoko bilkura deitzea, eta bertan izaten diren eztabaidak moderatzea eta zuzentzea.
 - d. Berme Batzordea erakundearen barruan eta kanpoan ordezkatzeta.
 - e. Osoko bilkurari Idazkaritza Teknikoaren arduraduna nor izango den proposatzea.
 - f. Instrukzioa edo ponentzia egiteko arduradunak aukeratzea.

8. ARTIKULUA.- PRESIDENTEORDEA.

1. Gehiengo single bidez hautatuko du osoko bilkurak presidenteordea.
2. Honako hauek dira presidenteordearen funtzioak:
 - a. Presidentea ordezte eta hari laguntzea aldi baterako falta bada eta falta hori behin betirako ez bada, eta haren izenean jardutea hori agintzen zaionean.
 - b. Presidenteari zeregin orokorretan laguntzea batzordeak ongi funtzionatu dezan.
 - c. Presidenteak delegatzen dizkion funtzioak gauzatzea.

9. ARTIKULUA.- IDAZKARI TEKNIKOA.

1. Gehiengo single bidez hautatuko du osoko bilkurak idazkari tekniko.
2. Honako hauek dira idazkari teknikoaren funtzioak:
 - a. Bilkura guztien akta egitea.
 - b. Aktak eta espedienteak biltzea eta zaintzea.
 - c. Idazki horiek legitimoki interesatutako pertsonen helaraztea.
 - d. Prozeduren instrukzioari laguntza tekniko ematea, Berme Batzordeak eskueran dituen baliabideak kudeatuz eta administratuz.
 - e. Modu eskusiboan eta presidentearekin batera, bermebatzordea@sortu.eus helbide elektronikoa kudeatzea.
 - f. Berme Batzordeak jasotako mezuen jarraipena egitea.
 - g. Osoko bilkurak ematen duen egintza bakoitzari dagozkion ondoz ondoko zenbakikuntzak esleitzea.
 - h. Erregistroa eta dokumentu-artxiboa kontrolatzea.
 - i. Osoko bilkuretatik eratorritako betearazi beharreko jarduketa guztiak betetzen eta burutzen direla egiaztatze jarraipena egitea.
 - j. Batzordeko presidentearen mende egongo da bere funtzioak egikaritzeko.

10. ARTIKULUA.- BAJAK ETA ORDEZPENA.

Berme Batzordeko kide-izaera galduko da heriotzagatik, dimisioagatik, eskubide beteko sortzailearen kondizioa galtzeagatik, edo, justifikaziorik gabe, ondoz ondoko hiru bileretara ez bertaratzeagatik.

Kasu horietan, salbuespenez, Kontseilu Nazionalak proposatzen duen ordezkoak ordeztu ahalko du batzordeko kide-izaera galdu duen pertsona, eta sortzaileei emango die horren berri, <https://partehartu.sortu.eus/> plataformaren bitartez. Kide horren izendapenaren ondoren egingo den lehenengo Batzar Nazionalak berretsi beharko du ezohiko erabaki hori.

III. Titulua.- Berme Batzordearen funtzionamendua.

11. ARTIKULUA.- BERME BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA.

1. Berme Batzordeak bere funtzioak betetzeko askatasuna, agintea eta independentzia dauka, eta ebazpenak, irizpenak eta gomendioak ematen ditu adierazpen-xedeetarako.
2. Soil-soilik sortzaile batek edo alderdiaren organo batek eskatzen badu esku hartuko du Berme Batzordeak, alderdiaren estatutuetan deskribatutako prozeduren arabera, betiere espediente idatzizko edo digital batean jasota geratuko den prozedura arin eta malgu baten bitartez.
3. Modu arrazoituan emango du bere irizpena, adostuko du, erabakiko du edo ebatziko du, estatutuen, kode etikoaren, aplikatu daitezkeen erregelamendu eta protokoloek osatutako araudiaren eta une bakoitzean indarrean dauden legeen arabera.
4. Irizpen bat, akordio bat, erabaki bat edo ebazpen bat onartuz, ukatuz edo egintza horiek zuzentzen zaizkien alderdiko organoei edo sortzaileei proposatuz gauzatuko ditu bere ekintzak, bere eskumenen arabera.
5. Berme Batzordearen ebazpenak irmoak dira, eta bertan deskribatzen diren ondorioak izango dituzte, ebazpenek ezartzen duten unetik aurrera betiere.

7

12. ARTIKULUA.- BERME BATZORDEAREN EGINTZA PROPIOAK.

Berme Batzordeak honako egintza hauek eman ahalko ditu bere eskumenekoak diren funtzioak egikaritzean:

- a. Ebazpenak. Izaera partikularreko egintza lotesleak, sortzaileen arteko edo alderdiaren organoen eta militanteen arteko espediente bat edo gatazka bat ebaztera bideratutakoak.
- b. Irizpenak. Interpretazio juridiko edo etikoak alderdiko organoek eskatuta emandakoak. Izaera loteslea izango dute eskaera egin duen alderdiko organoak horrela galdegin duenean.
- c. Zuzentarauak. Berme Batzordearen osoko bilkurak hainbat gairi buruz alderdiko organoei bidali diezazkiekeen jarduketa-orientabideak, organo horiek aipatutako gaiak espresuki arautu ez badituzte edo hutsune juridikoekin edo antolamenduhutsuneekin egin badute.
- d. Berme Batzordeko presidentearen zuzentarauak. Batzordearen funtzionamendu konkretua eta araudirik ezarri ez zaien jarduketak erakundearen barruan arautzeko orientabideak.

- e. Exhortoak edo ofizioak. Alderdiko organo bati bidaltzen zaizkion izaera instituzionaleko informazio-eskaerak. Konfidentzialak izan ahalko dira hori erabakitzen bada, eta bereziki inplikaturakoen datu pertsonalak babesteko.
- f. Akordioak. Ebazpentzat jo ezin diren jarduketak aktibatzen edo bukatzen dituzten izapide-egintzak.
- g. Ponentziak. Osoko deliberazioen oinarri diren instruktorearen egintzak. Ez dira publikoak eta ezin dira errekurritu. Ebazpen-proposamenak dira.

13. ARTIKULUA.- BILKURAK.

1. Presidenteari dagokio Berme Batzordeko ohiko bilkuren deialdia egitea, hori eskatzen duten gaiak tartean daudenean. Deialdia gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin egin beharko da.
2. Horrez gain, presidenteak ezohiko bileren deialdia egingo du, salbuespeneko edo presa bereziko gaiak aztertu behar direla uste duenean. Batzordeko gutxienez bi kidek eskatuta ere egin beharko da, eta idazki bidez eta bileraren arrazoi zehatzak eta xedea bertan adierazita egin beharko dute proposamena. Kasu horretan, 15 eguneko gehieneko epean egingo da deialdia eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita, eta gutxienez 24 ordu lehenagotik.
3. Deialdia mezu elektronikoki bidez egingo da, mezuan bileraren eguna, lekua, ordua eta gai-zerrenda adierazita.
4. Bileren gai-zerrenda deialdian barne hartuko da, eta gai-zerrenda hori organoaren aurreko bileratik sartu diren gaien, izapidetzen ari diren beste gaien, eta estatutu edo erregelamenduek ebazteko ezarritako epeen arabera zehaztuko da.
5. Deialdiaren aurrerapen berarekin jarriko dira Berme Batzordeko kideen eskueran eztabaidarako eta erabakirako beharrezkoak diren dokumentuak.
6. Berme Batzordea osatzen duten pertsonen sekretupean gordeko dituzte bileretan izandako deliberazioak, baita konfidentziasuna gorde espedienteak izapidetzean jakin dituzten gertaera eta zirkunstantzien gainean ere.
7. Berme Batzordeko idazkari teknikoak bileren akta egingo du, lortzen diren akordioak jasota.

∞

14. ARTIKULUA.- SARRERA-ERREGISTROA.

1. Berme Batzordeari zuzendutako edozein eskari, komunikazio edo baliabide fisikoki erregistratu behar da SORTUren edozein probintzia-egoitzatan, edo telematikoki mezu elektronikoki bat bidalita bermebatzordea@sortu.eus helbide elektronikora.
2. Sarrera-dataren arabera ordenatutako dokumentuen erregistro bat izango da, eta antzintasun-txandaren arabera esleituko zaie zenbaki bat espedientei. Interesdunen hasierako idazkia egoitzan hartu izana ere adieraziko da.
3. Idazkia erregistroan sartu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen epeak.

15. ARTIKULUA.- ERABAKIAK HARTZEA.

1. Batzordearen erabakiak gehiengo sinplez hartzen dira, salbu eta erregelamendu honetan besterik xedatzen bada. Berdinketa izanez gero, presidentearen botoak markatuko du erabakien noranzkoa.
2. Berme Batzordeko kideek ezin izango dute espediente baten izapidetze-fasean esku hartu alderdiekin dituzten lotura pertsonalak direla-eta gaiarekin aldez aurreko loturaren bati izan dutelako horrek interes-gatazka bat sortu badezake, edo beren jarduketan itxuraz inpartzialtasun-galera bat eragin badaiteke.

IV. Titulua.- Berme Batzordearen aurreko prozedurak.

16. ARTIKULUA.- KONTSULTAK EDO INTERPRETAZIO-ESKAERAK EBAZTEKO PROZEDURA

Sortzaile batek edo alderdiko kide batek estatutuak edo edozein barne-araudi interpretatzeko kontsulta bat aurkezten duenean, honako prozedura honi jarraituko zaio:

- a. Kontsulta edo eskaera egiteko idazkia soil-soilik batzordeko presidenteari zuzendu beharko zaio, eta erregelamendu honetako "Sarrera-erregistroa" atalean xedatutakoari jarraikiz erregistratu beharko da.
- b. Behin kontsulta edo eskaera jaso ondoren, presidenteak Berme Batzordeko gainerako kideei eman beharko die jaso izanaren berri.
- c. Kontsulta edo eskaera jaso ondoren deitutako lehenengo bileran, gaia aztertuko da eta hartutako erabakia aktan jasoko da.
- d. Ponente bat izendatuko da batzordeko kideen artean, eta hark irizpen bat idatziko du kontsulta egin duen pertsona edo organoari helarazi diezaioten, mezu elektronikoko bidez lehentasunez.

17. ARTIKULUA.- BABES-ESKEA, GATAZKA ETA AKORDIOEN AURKARAPENA EBAZTEKO PROZEDURA.

Estatutu-eskubideak urratzeagatiko, aurkaratzeagatiko, gatazkagatiko edo alderdiaren organoek hartutako erabaki bati lotutako erreklamazioagatiko babes-eske baten aurrean, estatutuen 25. artikuluan ezarritakoa betez jardungo da, honako izapide hauek beteta:

- a. Sortzaileek zein gobernu-organoei demanda, erreklamazioa, gatazka edo aurkarapena jarri beharko dute Berme Batzordean erabakia hartu denetik hamar eguneko epearen barruan. Sortzaile demandatzaile/erreklamatzailerari jakinarazpena derrigorrez pertsonalki helarazi behar bazaio, helarazten zaion egunetik zenbatuko da.
- b. Erregelamendu honen 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera erregistratuko da demanda/erreklamazioa. Bertan adierazitako bideetatik kanpo jasotako idazkiak ez dira baliozkoak izango.
- c. Aurkarapena izapidetzean kontraesaneko prozesu bat irekiko da, eta alderdiek ondoz ondoko epeetan aurkeztu ahalko dituzte alegazioak, epe bakoitza hamar eguneko izanik.
- d. Frogak proposatu eta egitea hamar eguneko epean gauzatuko da.
- e. Behin frogaldia amaiturik, bi alderdiek beren ondorioak azaldu beharko dituzte, eta, azkenean, dagokion ebazpena emango da.
- f. Berme Batzordeak bi hilabeteko epean ebatziko du gehienez, beren kideen gehiengo absolutuz, eta ebazpena nahitaez bete beharko da.

18. ARTIKULUA.- BABES-ERREKURTSOAK EBAZTEKO PROZEDURA DIZIPLINA-ESPEDIENTEEI DAGOKIENEZ.

1. Diziplina-espedienteetan eta Kontseilu Nazionalak hartutako ebazpenak direla-eta, babes-errekurtoa jarri ahalko da Berme Batzordean, jakinarazten direnetik hilabeteko epean.
2. Hiru hilabeteko gehieneko epean ebatziko du errekurtoa Berme Batzordeak.
3. Ezin izango da errekurtsorik jarri Berme Batzordearen erabakiaren aurka. Epai-tegi eta auzitegi eskudunetan soilik aurkaratu ahalko da erabakia.
4. Errekurtoa jartzeak eten egingo du zehapenen egikaritzea.

19. ARTIKULUA.- ERREGELAMENDUAREN INTERPRETAZIOA.

Berme Batzordea bera arduratuko da erregelamendu hau interpretatzeaz eta erregelamenduaren aplikazio praktikoan sortu daitezkeen arau-hutsuneak ebazteaz.